



Desgaitasun
fisikoaren esparruan
**BIZIMODU
INDEPENDENTEA**
bermatzeko garatu
beharreko politika
inklusiboak eta
esku- hartze soziala
diseinatzeko
gidaliburua





Gipuzkoako Gutxitasun
Fisikoa duten Pertsonen
Federazio Koordinatzailea

**DESGAITASUN FISIKOAREN ESPARRUAN BIZIMODU
INDEPENDENTEA BERMATZEKO GARATU BEHARREKO
POLITIKA INKLUSIBOAK ETA ESKU- HARTZE SOZIALA
DISEINATZEKO GIDALIBURUA**

2018
.....

elkartu

ondarreta pasealekua 5, behea
20018 donostia-san sebastián
tel: 943 316 770 / fax: 943 316 379
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gizarte Politikako
Departamentua
Departamento de
Políticas Sociales



Aurkibidea

01

SARRERA

02

ZERTARAKO GIDALIBURU HAU?

03

GIDALIBURUAREN HELBURUAK

04

ERALDAKETA SOZIALA: GIZARTE
INKLUSIBORGO BAT ERAIKIZ

05

NORA BIDERATU BEHAR DIRA POLITIKA
PUBLIKOAK DESGAITASUN FISIKOAREN
ESPARRUAN?

06

BIZIMODU INDEPENDENTEA BERMATZEKO
ESKU-HARTZE SOZIALA


07

BIZIMODU INDEPENDENTEA BERMATZEN
DUEN ESKU-HARTZE SOZIALA DISEINATZEKO
DEKALOGOA



oi

SARRERA



“Konbentzio honen Kide diren Estatuak berdintasun eskubideak aitortzen dizkiete desgaitasun fisikoa duen pertsona orori komunitatean bizi dadin; gainerako pertsonak dituzten aukera berberekin. Halaber, desgaitasun fisikoa duten pertsonak eskubide honetaz gozatu zein komunitatean parte hartu eta barneratu daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dira” (Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa, 19. artikulua, New York, 2006ko abenduaren 13a).



Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioak oinarritzko eskubideak aitortzen ditu. Hitzarmen honek, ordea, neurri jakinak hartzeaz harago, desgaitasun fisikoaren esparruan politika publikoak diseinatzeko beharra agerian jartzen du. Politika publiko horiek ondorengo printzipioak hartu behar dituzte kontuan:

- **Gizarte-inklusioa.** Gizarteak sustatzen dituen baloreak ongizate komunera eta kohesio sozialera orientatuta daude. Modu honetan, desgaitasun fisikoa duen pertsona orok aukera eta baliabideak ditu bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntzan, lanean eta kulturen parte hartzeko. Aldi berean, bizi baldintza berak izatea bermatzen da.
- **Normalizazioa.** Desgaitasun fisikoa duen pertsona orok baldintza beretan oinarritzen den bizitza batez goza dezakete, beste edozein pertsonarentzat eskuragarri dauden leku, esparru, ondasun eta zerbitzuetara sarbidea bermatuta.
- **Zeharkakotasuna.** Esku-hartzeak ez dira soilik desgaitasun fisikoa duten pertsonen bideratutako plan, programa edo berariazko ekintzak izango. Haratago joanez, esku-hartze publikoaren esparruan eraikiko diren politika eta ekintza lerro orokorrak diseinatu dira, desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharrak eta eskaerak kontuan izanda.



Beharrezkoa da politika publikoak garatzea desgaitasun fisikoa duten pertsonak errespetatuz eta beren eskubideak sustatuz; desgaitasun fisikoa duten pertsonen dagoen laguntza ikuspegia gaituz. Arreta eta babesa jaso behar duten subjektu hutsal gisara tratatzen dituen optikarik eskubideak dituen perspektibara igarotzea beharrezkoa da.

02

ZERTARAKO
GIDALIBURU HAU?



elkartu-k (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) 2016an aurkeztu zuen “Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharriaz buruzko azterketa-diagnostikoa” ikerketa proiektua. Egitasmoaren helburu nagusia, bizi-kalitatean eragina duten alorretan kolektiboaren egoera objektiboa zehaztea da, eta, erakunde publiko, eragile pribatuei eta gizarteari, orokorrean, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratze osoa eta gizarte-partaidetza bultzatzeko politika, neurri eta jarrerak hartzeko aldarrikapena egitea. Aldi berean, azterketa alor ezberdinetan dauden gabeziak identifikatu nahi izan dira (bizileku, hezkuntza, lana, egoera ekonomikoa, gizarte-bazterketa...), politika publikoen planifikazioan eta diseinu egokian laguntzeko.



Ikerketa proiektuak ondorengo proposamen multzoa nabarmendu nahi du:




Gizarte politiken diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan desgaitasun fisikoa duten pertsonen **eskubideak** dituzten subjektu gisan kategorizatzea, laguntza behar duten gizabanakoak direnaren optika alde batera utzita.



Baliabide sozialen **ikuspegi komunitarioa** bultzatzea, baldintza berak oinarri dituen gizartearen parte hartzea sustatuz.



Desgaitasun fisikoa duten pertsonen **laguntza ereduaren** berrikustea, Konbentzioan garatutako eredu soziala sustatuz, inklusio sozialerako orientazioa ardatz izanik.



Desgaitasun fisikoa duten pertsonen **autonomia pertsonala** sustatzea giza baliabide eta zerbitzuetan. Horrela, bizimodu independentea bultzatuko da.

Azken finean, Gidaliburu honek praktika egoki eta berrikuntzarako tresna izan nahi du, Konbentzioan zehazten diren oinarritzko eskubideak desgaitasun fisikoa duten pertsonetan bermatu daitezen. Horretarako, desgaitasun fisikoaren esparruan politika publikoak garatuko dira, esku-hartze sozialen diseinu eta exekuzioa eta beharrezko gizarte eraldaketak gizarte erabat inklusiboa lortzeko.

03

GIDALIBURUAREN
HELBURUAK

“Desgaitasun fisikoaren esparruan bizimodu independentea bermatzeko garatu beharreko politika inklusiboak eta esku-hartze soziala diseinatzeko gidaliburua”-k ondorengo helburuak ditu:

1. Desgaitasun fisikoaren arloko politika publikoetan eskubideak, orientazio komunitarioa eta bizimodu eredu independentearean ikuspegiak sustatzea.
2. Desgaitasun fisikoaren arloko politikak eta neurriak garatzen dituzten profesionalei bideratutako tresna sortzea. Erreminta honek profesionalei eskubide eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen Konbentzioaren printzipioak oinarri izatea ahalbidetuko die.
3. Desgaitasun fisikoa duten pertsonen Konbentzioan aitortutako oinarritzko eskubideak betetzen direla sustatzea.
4. Bizimodu independentea bermatzen duen ereduaren diseinuan laguntzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea bultzatuz erabakietan.
5. Eraldaketa soziala sustatzea desgaitasun fisikoa duten pertsonen gaitasun eta aportazioak kontuan hartuta. Aniztasuna eta inklusioa ardatz duten politika publikoak aitortuta.

Beraz, tresna honen helburuak **hiru dimentsio** barne hartzen ditu:

Pertsona guztien aukera berdintasuna eta **gizarte inklusiboagoa** izatea bermatzen duen eraldaketa sozialean aurrera egitea.

Desgaitasun fisikoaren esparruan inklusio soziala oinarri duten **politika publikoak** diseinatzea.

Bizimodu independentearen ereduaren diseinua, proiektzioa eta garapena ardatz dituen esku-hartze paradigma berri bat sustatzea.

04

ERALDAKETA SOZIALA:
GIZARTE INKLUSIBOAGO
BAT ERAIKIZ



Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioak desgaitasun fisikoaren eredu soziala bermatzen du. Modu honetan, desgaitasun fisikoa giza eratzea kontsideratzen da eta ez gizarteko alorretan parte hartzera mugatzen dion gutxitasun gisa. Hau da, gizartea bera da oztopo eta traben sortzaile eta, ondorioz, gizarteak eragozten die beren bizi proiektuak eta parte hartze komunitarioa askatasunean, autonomian eta berdintasunean garatzea desgaitasun fisikoa duten pertsoneri.

Pertsona guztiei aukera berdintasuna bermatzen dien politika sozialak garatu edota desgaitasun fisikoa duten pertsoneri esku-hartze soziala aplikatzea beren inklusioa bideratzeko beharrezkoa da. Paraleloan, ezinbestekoa da eraldaketa soziala sustatzea, eskubideak, berdintasuna eta aniztasunaren baloreak gizarteak berak aitortu ditzan desgaitasun fisikoaren alorrean.



Jarrera abegikorra desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideekiko	Desgaitasun fisikoagatik bazterketa, eskubideen aitortza oztopatuz eta eragotziz
Desgaitasun fisikoa duten pertsonen inguruan hautemate positibo eta aktiboa	Desgaitasun fisikoa duten pertsonak laguntzak eta esku-hartzeak jasotzen dituen subjektu pasibo gisa ikustea
Desgaitasun fisikoa duten pertsonen gaitasunen aitortza	Desgaitasun fisikoa duten pertsonetiko asistentzialismo eta protekzionismoa
Aniztasuna balioan jartzea gizartea aberasgarri egiten duen faktore gisan	Aniztasunetik desberdintasunak egitea
Desgaitasun fisikoa duten pertsonen inguruan ezer, desgaitasun fisikoa duten pertsonarik gabe	Desgaitasun fisikoa duten pertsonengatik guztia eman, baina desgaitasun fisikoa duten pertsonak kontatu gabe

ZER DA ERADALKETA SOZIALA?

Eraldaketa sozialaz hitz egiten dugunean, aukera berdintasuna bermatu eta aniztasunetik ezberdintasunak sortzen ez dituen gizarte bat aurreikusten dugu.

Hau da,
aukera berdintasunean, gizarteko
**KIDE izan, LAN egin, BIZI eta
PARTE izatea.**

AUTONOMIA

GAITASUNA

ANIZTASUNA

INKLUSIOA

HERRITARTASUNA

PARTE HARTZEA

ESKUBIDEAK

BERDINTASUNA

BIZIMODU
INDEPENDENTEA

05

NORA BIDERATU
BEHAR DIRA POLITIKA
PUBLIKOAK DESGAITASUN
FISIKOAREN ESPARRUAN?

Desgaitasun fisikoa gizarte-bazterketaren arrazoiaren sortzaile denez, ezinbestekoa da hartzen diren neurri eta politika publikoak eredu inklusiboen inguruan eraikitzea; desgaitasun fisikoa duten pertsonak komunitatean parte hartu eta sarbidea izan dezaten.

Gizarte-bazterketa ematen den kasuan esku-hartze egokia egin eta gizarte-bazterketak ekiditeko esparru ezberdinetan dauden baliabideak eta politiken diseinuak ondorengo ardatzen inguruan egituratu behar dira:



Pertsonen
nortasunaren garapena
ahalbidetzen duen
**hezkuntza
inklusiboa.**
Hezkuntza eskaintzak
eta hezkuntza
inguruneak ikasle
guztien beharrak asetu
behar ditu.

- > “Diskriminazio eza eta aukera berdintasuna oinarri dituen eskubidea eraginkor eginez, Konbentzioaren Kide diren Estatuak maila guztietan inklusiboa den hezkuntza sistema eta bizitza osoan zehar irakaskuntza izatea bermatuko dute”. **Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa, 24. artikulua**

Lana
ingurugiro ireki,
inklusibo eta
irigarria oinarri
dituen baldintzetan.
Diskriminazio eza eta
tratu bera bermatuz.

- > “Kide diren Estatuak desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubidetzat hartzen dute lan egitea; beste pertsonen baldintza berdinetan. Hori horrela, askatasun osoz aukeratutako edota merkatuak onartutako lan baten bitartez bizitza irabaziz, ingurugiro ireki, inklusibo eta irigarria bermatuta izan behar dute”.
Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa, 27. artikulua

Bizimodu eredu independentea;

desgaitasun fisikoa duten
pertsonek beren bizileku
propioa hautatzeko aukera izan
behar dute, non eta norekin bizi
nahi duten. Ez dira derrigortuak
izan behar bizi sistema jakin
batera bizitzera. Komunitatearen
bizitza aktiboan parte
hartu behar dute, horretara
bideratutako baliabideak eta
laguntzak aintzakotzat hartuz.

- “Konbentzio honen Kide diren Estatuak berdintasun eskubideak aitortzen dizkiete desgaitasun fisikoa duen pertsona orori komunitatean bizi dadin; gainerako pertsonak dituzten aukera berberekin. Halaber, desgaitasun fisikoa duten pertsonek eskubide honetaz goza dezaten hartu beharreko neurriak hartuko dira, komunitatean parte hartu eta egunerokotasunean barneratu daitezen. Bereziki ziurtatuko da desgaitasun fisikoa duten pertsonek beren bizileku propioa hautatzeko aukera izatea, non eta norekin bizi nahi duten, gainerako pertsonen baldintza berdinetan eta ez dira derrigortuak izango bizi sistema jakin batera bizitzera”.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa,**
19. artikulua

Irigarritasun unibertsa eta diseinua pertsona ororentzat;

inguruneak,
prozesuak, ondasunak,
produktuak, zerbitzuak, objektuak,
lanabesak, tresnak eta gailuak,
hasieratik, inongo diseinu
moldaerarik gabe, ulergarriak,
erabilgarriak eta baliagarriak izatea
pertsona ororentzat, segurtasun
zein erosotasunean, modu natural
eta autonomoan.

- > “Desgaitasun fisikoa duten pertsonak bizitza independentea izan eta bizi alderdi guztietan parte hartu dezaten, Kide diren Estatuak desgaitasun fisikoa duten pertsonen, gainerako gizabanakoen baldintza berdinetan, irigarritasuna bermatuko dute. Irigarritasuna ondorengo esparruetan: ingurune fisikoan, garraioan, informazio eta komunikazioan, informazio eta komunikazioaren teknologietan eta sistemetan, eta erabilera publikoko zerbitzu eta instalazioetan, hiri zein landa eremuan”. **Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa, 9.artikulua**

Desgaitasun
fisikoa duten
pertsonek parte
hartzea erabaki
publikoetan; ahalduntze
indibidualeko, kolektiboko
eta komunitateko
tresna gisa.

- > “Kide diren Estatuak desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubide politikoak bermatuko dituzte, baldintza berdinetan. Desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitza politiko eta publikoan baldintza berdinetan parte hartzen dutela ziurtatuko dute. Aldi berean, gai publikoen zuzendaritzan parte hartzeko ingurune aktiboa sustatuko da, diskriminazioa ekidinez eta baldintza berdinetan, desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea sustatuz gai publikoetan”. **Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen Konbentzioa, 29. artikulua**

05

NORA BIDERATU BEHAR DIRA POLITIKA PUBLIKOAK DESGAITASUN FISIKOAREN ESPARRUAN?



Hezkuntza inklusiboa	Hezkuntza bereizia
Lana ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrian	Babestutako lana
Bizimodu Eredu Independentea	Instituzionalizazioa
Irisgarritasun Unibertsala	Bazterketaren eragile diren ondasun, ingurune eta zerbitzuak
Parte hartze osoa eta efektiboa	Bazterketa eta arreta zein esku-hartze objektua



Azken finean, beharrezkoa da, iraganeko egitura, inertzia eta paradigmak alde batera uzten dituen eta desgaitasun fisikoa duten pertsonei eskubideak aitortzen dizkieten politika publikoak eratzea. Politika publiko horiek desgaitasun fisikoaren inguruko ikuspegia aldatuko dute; Konbentzioan ageri diren eskubideak izango dituzte oinarri.

06

BIZIMODU
INDEPENDENTEA
BERMATZEKO
ESKU-HARTZE
SOZIALA



Bizimodu eredu independentea Gidaliburu honen ardatz eta esku-hartze sozialaren helburu nagusia izanik, beharrezkoa da eskubide honetan sakontzea:




Zer da bizimodu independentearen eredua?

Desgaitasun fisikoa duen pertsona ororen **eskubidea** da, beren existentzia, bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duen **erabakitze**ko ahalmena izanez, erabakitzeko eskubidea erabilita. Horrela, gainerako pertsonen **baldintza berdinetan** biziko da gizabanako oro, aurrez ezarritako bizi sistema jakin batean bizitzera derrigortuak izan gabe.



Zein da bizimodu eredu independentearen helburua?

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen **parte hartzea** eta **inklusioa** komunitatean, hau da, bizitza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntza, lan eta kulturalean aukera eta beharrezko baliabideak bermatuz. **Baldintza berdinetan** oinarritutako bizitzaz gozatzeko, funtsezkoa da **pertsona guztiei irisgarritasun unibertsala** eta **diseinua** bermatzen dizkien printzipioak ziurtatuta izatea.



Non aitortzen zaie bizimodu eredu independentea desgaitasun fisikoa duten pertsonei?

- Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa
- Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Europako Estrategia, 2010-2020
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasun fisikoa duten pertsonen Eskubide eta Inklusio Sozialari buruzko Lege Orokorrak Testu Bategina onesten duena
- Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Espainiako Estrategia, 2012-2020
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa
- 87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean Programako banakako laguntzak arautzen dituen



Zeintzuk dira bizimodu eredu independentea eraginkor egiteko elementu nagusiak?

Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria;

oztopoak gainditzeko beharrezkoak diren neurriak sustatu irisgarritasun baldintzak bermatzen dituen etxebizitza ziurtatzeko.

Diru-sarrera minimoak bermatu; bizitza duin bat eraman ahal izateko, oinarrizko beharrak asetzeko gastuei aurre egiteko eta bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko.

Laguntza pertsonala; eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko eta komunitatean parte hartzeko, hala nola, baliabide eta beharrezko laguntza bizitza eredu independentea gauzatzeko.

Laguntza produktuak; desgaitasun fisikoa duten pertsonen aukera berdintasuna eta autonomia pertsonala ziurtatzeko.

Irisgarritasun unibertsala eta diseinua pertsona ororentzat, aukera berdintasunean ondasun, produktu eta zerbitzuetara sarbidea bermatzeko.

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO EREDUA

Zer da?

Desgaitasun fisikoa duen pertsona ororen **eskubidea** da; beren existentzia, bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duen **erabakitze**ko ahalmena izatea, **erabakitze**ko **eskubidea** erabilita. Horrela, gainerako pertsonen **baldintza berdinetan** biziko da gizabanako oro, aurrez ezarritako bizi sistema jakin batean bizitzera derrigortuak izan gabe.



Zein helburu du?

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen **parte hartzea** eta inklusioa komunitatean, hau da, bizitza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntza, lan eta kulturalean aukera eta beharrezko baliabideak bermatuz. **Baldintza berdinetan** oinarritutako bizitzaz goatzeko, funtsezkoa da, **pertsona guztiei irisgarritasun unibertsala** eta diseinua bermatzen dizkien printzipioak ziurtatuta izatea.



Eraginkor egiteko faktoreak

- > Etxebizitza duin, egokitua eta irisgarria
- > Diru-sarrera minimoak
- > Laguntza pertsonala
- > Laguntza produktuak
- > Pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsala eta diseinua
- > Bizimodu Eredu Independentera bideratutako esku-hartze soziala (*Definizioa, Faseak, Printzipioak, Gizarte bazterketarako balorazio tresnak, Arreta plan pertsonalizatua, Esku-hartzen duten eragileak hurrengo orrialdeetan azaltzen dira*)

Bizitza independientera orientatutako ESKU-HARTZE SOZIALA

Nabarmendu diren funtsezko elementuen kanalizazioa eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen askatasunez aukeratzeko eta erabakitzeko eskubideak beren bizitza proiektua hautatzeko, **esku-hartze sozialaren** bidez kanalizatu behar dira, betiere bizimodu eredu independentea oinarri hartuta.



Esku-hartze soziala, “behar sozialei erantzuna emanez; legitimazio publiko edo soziala lortzeko asmotan eta pertsonen elkarrekintzan eraginez, formalki edo antolatuta egiten den jarduera da” (Fernando Fantova). Hori horrela, bizimodu eredu independentearen printzipioen egokitzapena beharrezkoa izango da esku-hartze sozial horretan, eskubide guztiak bermatuta izateko.

- **Jarduera formal edo antolatua;** desgaitasun fisikoaren esparruan eratzen diren eskubideetan oinarrituta, bizimodu independentea izateko eskubidea barne hartuz. Hala nola, desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatu eta/edo esku-hartzen duten eragile ezberdinen esperientzia eta diagnostikorako tresnak ematen duten informazioa kontuan izanez.
- **Behar sozialei erantzuna eman nahi dien jarduera;** gure kasuan, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independentea eta komunitateko kide izateko eskubidea ahalbidetzea, betiere baldintza berdinetan.
- **Pertsonen elkarrekintzan eragina izan nahi duen jarduera;** hau da, desgaitasun fisikoa duen pertsonen gaitasunak balioan jarri eta beren inklusio eta parte hartzea komunitateko bizitza politikoan, ekonomikoan, hezkuntzan, lanean eta kulturean.
- **Legitimazio publiko edo soziala eskuratu nahi duen jarduera;** horretarako, beharrezkoa da ezagutzara eta onarpen sozialera bideratutako eraldaketa soziala, ondorengo premisaren inguruan: pertsona ororen eskubidea da, beren existentzia, bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duen erabakitzeko ahalmena izatea, erabakitzeko eskubidea erabilita, bizimodu eredu propioa garatzeko.

Bizimodu eredu independentea lortzeko bideratutako esku-hartze soziala ondorengo **printzipioetan oinarritzen da:**

- Desgaitasun fisikoa duen pertsonak bere bizitza proiektua hautatu eta erabakiko du askatasun osoz
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen gaitasunen aitorpena eta onarpena, mendeotasun edo/eta desgaitasun fisiko egoeraren limitazio funtzionalei erantzuna emateko
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharren arabeko baliabideen konfigurazioa arreta plan pertsonalizatuaren barnean
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak aitortuz eta laguntza behar duten subjektua den ikuspegia gaindituta
- Ikuspegi komunitarioa, desgaitasun fisikoa duten pertsonaren esku-hartzea ingurune naturalera moldatu eta bere iraunkortasuna bermatu. Komunitatean beren parte hartzea ziurtatu.
- Baliabideen ikuspegi inklusiboa, desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea bermatuz komunitatean, baldintza berdinetan.

- Zeharkakotasuna, desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharrak asetzeko esparru ezberdinetan esku-hartzeak eginez, desgaitasun fisikoa duten pertsonei bideratutako baliabide mugarik gabe.
- Diziplinarteko izaera, esparru ezberdineko profesionalen arteko koordinazioa eta talde lana sustatuz (gizarte zerbitzuak, etxebizitza, hezkuntza, lana, laguntza produktuak, irisgarritasuna, legegintza, etab.)
- Parte hartzen duten administrazio publikoen arteko koordinazioa eta kooperazioa, hala nola, hirugarren sektore soziala.



Printzipio hauek oinarri hartuta, **Gizarte Bazterketaren Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratuak**, diagnostiko eta baliabideak eskaintzetik haratago, bizimodu eredu independentea bermatzeko bidean egin beharreko esku-hartze soziala aurrera eraman eta diseinatzeko lanabes eraginkorra da, bertan barne hartzen diren indikadore multzo bati esker:

BIZI EREMUA

DIMENTSIOAK

EKONOMIA LANA BIZILEKUA

- EGOERA EKONOMIKOA
- LAN EGOERA
- BIZILEKUAREN EGOERA

ELKARBIZITZA

- ETXEBIZITZA EGOERA
- LOTURA AFEKTIBOAK ETA HARRERA LAGUNTZA SOZIALA
- ELKARBIZITZA, FAMILIA ETA HARREMAN PERTSONALEN EGOERA
- EGUNEROKO BIZITZAREN ANTOLAKUNTZA
- ELKARBIZITZA HARREMANA BESTE TESTUINGURUETAN

PERTSONALA

- GAITASUN SOZIALAK
- HEZKUNTZA - FORMAZIOA - INFORMAZIOA - TREBAKUNTZA
- BIZI DINAMISMOA
- BABES SISTEMEN ERABILERA

OSASUNA

- OSASUN EGOERA
- LANERAKO EZINTASUNA, DESGAITASUN FISIKOA ETA MENDEKOTASUNA

SOZIALA

- ONARPEN SOZIALA ETA KOMUNITATE ELKARBIZITZA
- GIZARTE INGURUNE ETA NORMALIZAZIOA EGOKITZAPENA
- HARREMAN ETA PARTE HARTZE SOZIALAREN ESKURAGARRITASUNA

DIAGNOSTIKOTIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

INKLUSIO SOZIALAREN EGOERA



Gizarte-babeserako sistemetara sarbidea, herritarren eskubide eta betebeharretara sarbidea, harremanetarako gaitasun pertsonal eta sozialak izatea, parte hartze soziala bermatzeko.

GIZA BAZTERKETARAKO



Ezaugarri edo faktore pertsonal eta sozialen presentzia edo gabezia giza bazterketa eragiten duten egoera edo prozesuen agerpenerako.

GIZA BAZTERKETA EGOERA



Denboran zehar agertzen diren gabezia betetako bizitza eta elkARBIZITZA egoerak. Beren metaketak giza bazterketa egoera sortzen du, baliabide pertsonal, harreman eta material gabeziekin zuzenean lotuta.

INTENTSITATEA

- ARINA
- MODERATUA
- LARRIA

MOTA

- HARREMANAK
- JURIDIKOA ETA ADMINISTRATIBOA
- BIZILEKUA
- EKONOMIKOA ETA LANA

Diagnostikotik, **arreta plan pertsonalizatu** bat bereganatzen da, desgaitasun fisikoa duen pertsonaren erabakien araberakoa. Faseak, helburuak eta jarduerak zehazten dira eta diagnostikotik ondorioztatutako zerbitzu eta identifikatutako jarduera-eremu prioritarioak finkatzen dira, bizimodu independentearen eredua gauzatu ahal izateko.



FAMILIA-GIROAN
ZAINTZEKO LAGUNTZA
EKONOMIKOA

LAGUNTZA PERTSONALERAKO
LAGUNTZA EKONOMIKOA

PENTSIONA

LAGUNTZA
PRODUKTUAK

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO
PROGRAMA

DIRU-SARRERAK
BERMATZEKO ERRENTA

FAMILIA
LAGUNTZAK

TELELAGUNTZA-
ZERBITZUA

ETXEZ-ETXEKO
LAGUNTZA
ZERBITZUA

LAGUNTZA ETA ZERBITZU
BERRIAK ABIAN JARTZEKO
JARDUERA BERRITZAILE
ETA ESPERIMENTALAK

IKASKETA
PROGRAMAK BIZITZA
OSOAN ZEHA

OHIKO LAN
MERKATURA
BARNERATZEKO
TRESNA INKLUSIBOAK

IRISGARritasun
unibertsalerako
sustapena

Bizimodu independentearen ereduaren esku-hartze sozialean **eragile** ezberdinek parte hartzen dute beren diseinu, inplementazio, jarraipen eta ebaluazioan, eta ondorengoak dira beraien eginkizunak, zeinak kasu guztietan beharrezkotzat izango duten ekintza koordinatua:

Udaletako gizarte zerbitzuak:

bizimodu eredu independentera bideratutako esku-hartze sozialerako zerbitzuen hornidura, hala nola, kasuaren erantzukizuna erreferentziazko profesionali bideratuz eta desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituzten hirugarren sektore sozialarekin koordinazioan arituz.

Foru gizarte zerbitzuak:

bizimodu eredu independentera bideratutako esku-hartze sozialerako zerbitzuen hornidura, parte hartzen duten eragileen eta profesionalen formazioaren sustapena. Aldi berean, kasuaren erantzukizuna hartuko du erreferentziazko pertsona profesionalak hala nahi duenean, udaletako gizarte zerbitzuekin koordinazioan eta esku-hartzean zehar komunitatearen eta desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituzten hirugarren sektore sozialaren parte hartzea bermatuz.

Autonomia mailako gizarte zerbitzuak:

bizimodu eredu independentera bideratutako zerbitzu eta laguntzen erregulazioa, baita Gizarte Bazterketaren Balorazioa egiteko Tresna Tekniko Bateratuarena.


Gizarte zerbitzuekin zerikusirik ez duten eragileak:

bizimodu eredu independentean eragin zuzena duten gizarte zerbitzu, sistema eta politika publikoen arteko koordinazioa, bere zeharkako izaera eraginkorra eraginez (diru-sarrera bermatzeko sistema, etxebizitza sistema, lan sistema, hezkuntza sistema, osasun sistema, etab.).

Hirugarren Sektore Soziala:

bizimodu eredu independentearen sustapenera bideratutako politika eta ekintza lerro publikoetan parte hartze erreala eta eraginkorra bermatzea diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan; eragile publikoekin bideratutako parte hartze, kooperazio eta kolaborazio espazioak bultzatuz. Desgaitasun fisikoa duten pertsonen garapen soziala eta normalizazioa balioan jarri; eragile publiko eta pribatuen arteko sinergiak sortu; eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzea ziurtatuz desgaitasunaren alorreko politiken diseinu eta jarraipenean.

BIZIMODU INDEPENDENTEA BERMATZEKO ESKU-HARTZE SOZIALA



07

BIZIMODU
INDEPENDENTEA
BERMATZEN DUEN
ESKU-HARTZE SOZIALA
DISEINATZEKO
DEKALOGOA

DE KA LO GOA

- 1 **Esku-hartze soziala ez da helburu bat bere horretan, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskaintzen zaien lanabes bat baizik.** Beraien bizitzeko eskubidea gauzatu dezaten bermatuko du, nahi duten tokian, nahi duten moduan eta nahi duten pertsonekin garatuz euren bizitza. Askatasunean aukeratu duten bizi proiektuko kontrola beren eskuetan izango dute.
- 2 **Desgaitasun fisikoa duten pertsonak** eskubideak dituzten subjektu bezala, ez dira arreta iturri soilik, ezta esku-hartze profesionaleko objektu pasiboak, euren erabakien boterea dute, beraien bizi proiektuaren ardura hartzeko gai direla kontuan izan behar baita.
- 3 **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzu Sistemak** eta hura osatzen duten eragile ezberdinek, desgaitasun fisikoaren politika ezberdinen birorientazioan lidergoa hartu behar dute, gainerako sistemekin lankidetzan eta koordinazioan. Lortutako eskubideen eraginkortasuna bultzatzea, aboratzeko asistentzialista gainditzea eta nagusiki teorikoa den ikuspegia gauzatzea izango dute ardatz.
- 4 Ez da nahikoa esku-hartzeak hezkuntza, lana, bizilekua, egunerokotasuneko jarduerak, aisialdia eta beste hainbat esparrutan soilik gauzatzea, baizik eta **izaera barneratzailea** ziurtatu behar du, desgaitasun fisikoa duten pertsonen guztizko hiritartasuna eta bakoitzaren gaitasunen sustapena bermatuz.
- 5 Esku-hartze soziala desgaitasun fisikoa duten **hiritarretan** ardaztu behar da, beraien izaera integrala bermatuz, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bideratutako baliabide, zerbitzu eta bereziki araututako laguntzetara mugatu gabe

- 6 Esku-hartze sozialean, bizimodu independentera zuzendutako baliabide, zerbitzu eta laguntzak, ahal den neurrian, malguak izan behar dute, eta **desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharretara moldatu**, azken hauek katalogo zurrun batera moldatzeko beharra izan ez dezaten eta aurrez zehaztutako erantzunak jaso ez daitezen.
- 7 Instituzionalizazioa itzulgarria izan daiteke eta izan behar du gaitasunek eta baldintzek bizi proiektu independente bat diseinatu eta aurrera eramateko bat egitean. Horrenbestez, **desinstituzionalizazio prozesu bati** hasiera ematen zaio egoitza-arreta ereduaren alorrean, autonomia pertsonala bultzatzeko, garapen pertsonala sustatzeko eta bizitza autonomo bat lortzeko gaitasun, konpetentzia, trebetasun eta esperientziak sustatuko dituen; baita parte-hartze komunitarioa bermatuko duena ere.
- 8 **Prestazio ekonomiko eta zuzeneko ordainketek zerbitzuek** baino gehiago laguntzen dute desgaitasuna duten pertsonen erabakitzeko eskubidean eta beraien bizi proiektuan izan dezaketen kontrolean. Modu horretara, instituzio edo bitartekari diren eragileetatik desgaitasun fisikoa duten pertsonen beraien bizitza propioa ardura, arrisku, asmatze, eta akatsak transferitzen zaizkie.
- 9 **Hirugarren Sektore Soziala**, hau da, desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeak, ezinbesteko eragilea dira bizimodu independenterako politikak eta neurri publikoak bultzatzeko, izan ere, ezaguera, esperientzia eta ordezkagarritasuna barne hartzen ditu. Horrez gain, politika publiko eta esku-hartze sozialen zeharkako izaera bermatzen dute.
- 10 Bizimodu independente bat lortzeko esku-hartze soziala ikuspegi inklusibo batean oinarritutako politika publikoetan garatu behar da. **Politika horiek gizarteko esparru ezberdinetan aukera berdintasunaren aldeko apostua egiten duen gizarte batean diseinatu behar dira**. Horrenbestez, erakunde, eragile eta pertsonen dagokie berdintasunean aurrera egingo duen eraldaketa sozial batean konprometitzea dibertsitatea aitortuz eta balioan jarritz.

